

## PRENTSA-OHARRA

# MARÍA JOSÉ TELLERIA: “GOBERNU HONEK EZ DITU BERETZAT HARTU BEHAR BERARI EZ DAGOKKION MEREZIMENDUAK”

Mendaroko PSE-EEK EAJri sozialistek aurkeztutako ekimenez “jabetzea” aurpegiratzen dio, udal-aurrekontuei aurkeztutako zuzenketen emaitza direla aipatu ere egin gabe. “Badakigu oposizioan gaudela, baina gobernu-taldeak ezin digu guri dagokigun lekua ukatu eta merezi ez duen merezimendua beretzat hartu”.

Ohar batean, María José Telleria bozeramaile sozialistak azaldu duenez, “gure taldeak legegintzaldi honetako bi ekitaldietan aurkeztutako ekimenak, udal-aurrekontuen aurrean gure abstentzioaren truke onartu zirenak, gobernu-taldeak bereganatu egin ditu eta hedabideetan bereak izango balira bezala saltzen ari da. Harrigarria da alkateak proiektu horien inguruan egiten duen defentsa, PSE-EEK proposatu behar izan zituenean, alkatearen beraren ekimenik ezaren aurrean. Ordura arte udal-gobernuak ez zuen haiek aurrera eramateko inolako asmorik”, adierazi du.

“Azken aldian, EAJk hedabideen aurrean aurkeztu ditu ospitalera irisgarritasuna hobetzeko igogailu bat eraikitzeko, landa-bideetako inbertsio-partida handitzeko eta gazteei etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak emateko ekimenak, gure lana inola ere aintzat hartu gabe. Baina Berdintasun Plana edo negozio berriak abian jartzeko laguntzak ere gure proposamenetatik abiatuta kudeatu dira, eta gobernu-taldeak ez du hori inork jakitea nahi”, salatu du zinegotzi sozialistak.

Telleriak gogoratu du proposamen horietako bat bera ere ez zegoela jasota alkateak legegintzaldi honetan aurkeztu dizkigun udal-aurrekontuetako proiektuetan eta, sozialistek zuzenketa partzialak aurkeztu ondoren, PSE-EEK eta EAJk izandako negoziazioei esker ahalbidetu zela proposamen horiek udal-gobernuak jasotzea. Era horretan, gobernuak “ideiarik, proiekturik eta bultzadarik gabe eta estrategiarik gabe” dagoela erakutsi du.

Mendaro, 2021eko martxoaren 17a

Alma Fernandez (Gipuzkoako PSE-EEko prentsa)

**MUGIKORRA: 670586833**

---

**Oficina de Prensa**

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

[prensa@socialistasgipuzcoanos.com](mailto:prensa@socialistasgipuzcoanos.com)

## NOTA DE PRENSA

# MARÍA JOSÉ TELLERIA: “ESTE GOBIERNO NO DEBE ARROGARSE MÉRITOS QUE NO LE CORRESPONDEN”

El PSE-EE de Mendara recrimina al PNV que “se adueñan” de las iniciativas presentadas por los socialistas, sin ni siquiera mencionar que sean fruto de las enmiendas presentadas a los presupuestos municipales. “Sabemos que estamos en la oposición, pero el equipo de gobierno no puede negarse a darnos el lugar que nos corresponde y arrogarse un mérito que no merece”.

En un comunicado, la portavoz socialista, María José Telleria, ha explicado que “iniciativas presentadas por nuestro grupo en los dos ejercicios que llevamos de legislatura y que fueron asumidas a cambio de nuestra abstención a los presupuestos municipales, han sido acaparadas y se están vendiendo por parte del equipo de gobierno como propias en los medios de comunicación”. “Es increíble la defensa que hace el Alcalde de estos proyectos cuando ha sido el PSE-EE quien tuvo que proponerlas ante su falta de iniciativa. Hasta entonces no había intención alguna por parte del gobierno municipal de llevarlas adelante”, ha señalado.

“Ultimamente, la construcción de un ascensor para la mejora de la accesibilidad del hospital, el incremento de la partida de inversión en caminos rurales y las ayudas económicas destinadas al alquiler de viviendas para los jóvenes se han presentado a los medios por parte del PNV sin ningún reconocimiento a nuestra labor. Pero también el Plan de Igualdad o las ayudas para la puesta en marcha de nuevos negocios se han gestionado a partir de nuestras propuestas y el equipo de gobierno no quiere que nadie lo sepa”, ha denunciado la concejala socialista.

Telleria ha recordado que ninguna de estas iniciativas estaban recogidas en los proyectos de presupuesto municipal que nos ha ido presentado el Alcalde esta legislatura y fue la posterior negociación del PSE-EE con el PNV, tras la presentación de las enmiendas parciales socialistas, lo que posibilitó que estas propuestas fueran recogidas por el gobierno municipal, que ha demostrado que está “sin ideas, sin proyectos y sin impulso, así como sin una estrategia”.

Mendara, 17 de marzo de 2021

Alma Fernández (prensa PSE-EE de Gipuzkoa)

**MOVIL: 670586833**

---

**Oficina de Prensa**

C/ Prim, 15 – 20006 Donostia

Telf: 943455655 /// Móvil: 670586833 /// Fax: 943452530

[prensa@socialistasguipuzcoanos.com](mailto:prensa@socialistasguipuzcoanos.com)